

NERE ETCHEA.

Ikusten doçu goicean,
Arguia hasten denean,
Mendito baten gainean,
Etche ttipitto, aintcin churi bat:
Lau haitz ondoren erdian,
Chacur churi bat athian,
Ithurriño bat aldian?
Han bici naiz ni bakian.

Nahiz ez den gaztelua;
Maite dut nic sor lekhuā:
Aiten aitat hautatua.
Etchetic campo çait iduritzen
Nombeit naizela galdua:
Nola han bainaiz sorthua,
Han utzico dut mundua
Galtcen ez badut zenzua.

Etchean ditut nereac
Akhilo, haintçur, goldeac,
Uztarri eta hedeac;
Yazco bihieç ditut oraino
Zoco guciac betheac;
Nola iragan urtheac
Emaiten badu bertceac,
Ez gaitu hilen goseac.

Landaco hiru behiac,
Esnez hampatu ditiac,
Ahatche eta erguiac,
Bi idi handi copeta çuri;
Biscar beltz, adar handiac,
Cikiro bildotz guciac,
Ahuntzac eta ardiac
Nereac dire guciac.

Ez da munduan guiçonic,
Erregueric ez printceric,
Ni becin urusa denic;
Badut andrea, badut semea,
Badut alaba ere nic;
Osasun ona batetic,
Ontasun aski bertcetic,
Cer behar dut guehiago nic?

Goicean hasiz lanean
Arratsa heldu denean,
Nausi naiz mahainean;
Guiristino bat ona dut hartu
Nic emastea hartcean,
Ez du mehe egunean
Sarthuço uste gabea
Chingar heçurric eltcean.

Piarres ene semea,
Nahiz oraino gaztea,
Da mutico bat ernea;
Goicean goicic basken erdira
Badarama arthaldea;
Seguituz ene bidea,
Nola baitu eguita,
Ez du galduco etchea.

Ene alaba Cattalin,
Bere hameka urtheekin,
Ongui doha amarekin:
Beguiac ditu amac bezala,
Ceru çola begin urdin;
Uste dut demborarekin,
Oraico itchurarekin,
Andre on bat dio eguin.

Ez dugu behar lurrean,
Ungui biciric etchean,
Utzi laguna gosean;
Ez du beharrac secular yotcen
Gure etcheco athean,
Non ez duen mahainean
Othuntza ordu denean
Lekhu bat gure aldean.

Ene Andrea Maria
Ez da andre bat handia,
Hainan emazte garbia;
Hirri batentzat badut etchean
Nic behar dudan guzia.
Galde eguiten dut gracia
Dudan bezala hasia
Akhahatceco bicia.

J. B. ELIZAMBURU.

